

XV OLERKI LEHIAKETA ETA II KONTAKETA LABURRAREN LEHIAKETA

1. PARTE-HARTZAILEAK

Espainiako edozein unibertsitateko ikaslek parte har dezake. Baita Nafarroako Unibertsitatean graduatutakoak eta bertako langileak ere (beren adina 30 urte baino gutxiagokoa bada). Lehiaketa bakoitzak bi modalidade ditu: Gaztelania eta euskara.

2. IDAZLANAK

Jatorrizkoak, argitaragabeak eta beste lehiaketetan sarituak ez izanak izan behar dute. Ez da beste lehiaketetan saritutako lanik onartuko. Bi lehiaketek (olerki eta kontaketa laburra) gaia eta antolaketa libreza izango dute.

3. LUZAPENA

- Olerkia: Olerki edo olerki multzoa, gehienez 40 bertsoko luzapena.
- Kontaketa laburra: Gutxienez hiru orrikoa eta gehienez seikoa. Mekanografiatua eta espazio bikoitza, orrialdeko aurpegi bakarrean, iturria Times New Roman, tamaina 12 eta justifikatua.

4. IDAZLANAK NOLA AURKEZTU

Gutun-azalean aurkeztu behar da:

- a) Lan bakoitzetik lau ale, sinatuak eta egilearen ezizenarekin ale bakoitzaren lehenengo orriaren goiburukoan, lanaren izenburuarekin batera eta zein lehiaketan parte hartzen duen aipatuz.
- b) Gutun-azal txikia, kanpoaldean ezizenarekin, barruan orri bat ondoko datuekin:
 1. Ezizena
 2. Lehiaketa (olerkia edo kontaketa laburra)
 3. Modalitatea (gaztelania edo euskara)
 4. Izena eta abizenak, telefonoa, helbidea eta posta elektronikoa
 5. Titulazioa, kurtsoa eta unibertsitatea
 6. Graduatutakoen kasuan, zein urtetan eskuratua izan zen titulua eta langileen kasuan, zein den beren lanbidea.
 7. Egiletza eta lana saritua izan ez denaren zinpeko aitortpena

5. IDAZLANAK NOIZ AURKEZTU

2012ko urtarrilaren 27an, 17:30ak baino lehen, aurkeztuko dira, bi modutan:

- a) Postaz: Actividades Culturales, Edificio Central. Universidad de Navarra 31009 Pamplona (Kultur-ekintzak, Eraikin nagusia. Nafarroako Unibertsitatea 31009 Iruñea).
- b) Zuzenean gure jendearentzako arreta ordutegian: 9:00etatik 13:30etara eta 15:30etatik 17:30etara.

6. SARIAK

Modalitate bakoitzean 900 euroko sari bana emango da. Hutsik geratuz gero, epaimahaiak akzesit ordaindua emateko eskubidea izango du. Epaimahaiaren erabakia jakitera emango da Premios Vida Universitaria emanaldian, 2012ko martxoaren 29an ospatuko dena, Nafarroako Unibertsitateko Zientzia eraikuntzaren Areto Nagusian. Finalera iristen direnei alde aurretik abisatuko zaie eta ekitaldira joango direlaren konpromisoa hartuko dute.

7. IDAZLANEN HEDAPENA

Actividades Culturales /Kultur Ekintzak saritutako lanak argitaratzeko eta hedatzeko eskubidea izango du.

8. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketan esku-hartzeak oinarrien onartzea dakar. Oinarriak neurri batean edo bere osotasunean betetzen ez duenak, kanporatua izango da.

